

ETXEKO ALABEA

Gona gorriz jantzia,
odola izterretan zintzilik,
gerria su
alua ke
zilborra lo
gona gorriz jantzia
etxeke alabea.

Zilar-gorri, begi-lauso, nini-gordin,
ezpain zartatuetan egin dio irrist karminak,
eta badoa
hormigoizko laba okotzean behera
azazkaletaraino.

Oinatz gorriak utziz
hegan bezala doa
gona gorriz jantzia
etxeke alabea.

Gorrituko zaizkio agian masailak,
eta hala ere,
bihotz formako piruletak janez pasako du arratsaldea;
kris eta kras hautsiko zaizkio hortzak.

Hortzak ere hautsiko zaizkio
gorri eta huts
eta negar-min eseriko da belaunak zorrotz
ume(ago)tan egin zuen urratuari begira.

Etxeko alabea umea da,
odola izterretan zintzilik
gona gorritz jantzia.

Umea da etxeko alabea,
baina hori berak ez daki
eta beste inork ere ez.

*

*

*

Korrika joaten zen
lurra oin-puntei itsatsiz,
tximeletak zapaltzeko beldurrez
besoak airean astinduz
zapla-zapla joz poz-irrikak.
Joaten zen maldan gora,
gora eta gora,
harriak atzetik eroriz

eroriz-eroriz zituela.

Joaten zen gona zimurdurak izterretan altxatuta,

garo usaina saltoka-saltoka zurrunbiloka ukituz;

joaten zen gor

joaten zen lur

joaten zen min

baina konturatu gabe gorriaz.

Izan ere ezpainarteak hauspotzen zuen irribarre hark

urrea balio zuen

eta hutsa.

Etxeko alabea

etxeko alabea zen,

inor begira ez zegoenean

korrika joaten zena

haize-hego

haize-aske

edonora,

ahuntzak lepoa nola, gerria sokaz estu zuela konturatu gabe.

*

*

*

Negarrak etorri ziren gero

trumoia malko artean

lo-atzean izerdia

ezonegona bizkarrean matxinsalto.

Gero etorri ziren ezkutatu beharra,

beldurra arnasaldi bakoitzean.

Eta gero etorri zen ezina.

Zer den eskua ukalondoraino luzatu ahal izatea,

ukalondoraino soilik,

zer den sorbaldarik gabeko mundu batean salto egin eta lurretik gertuegi gelditzea.

Zer den orpoak orpoa zapaltzea,

eta egotea

denbora bat, denbora bi, denbora hiru...

egotea

norakorik gabe

noiz artekorik gabe,

egotea zulo esaten dioten ezerez baten erdian

irrintzi mutuka.

Etxeko alabea atera zen,

atera zen zuloatik

eta etxera bidean

alaba izateari noiz utzi zion egin zion galde

bere ez-buruak.

*

*

*

Etxeko alabeak anaia bat zuen

eta orkatz-eme bat.

Anaiak ihes egiten zion

eta orkatz-emeak ihes eginarazten.

Ilargi beteko gauetan

kukutzen zen sasi-artean

arantza-hotz

osin-erre

harri-zarpail

eta heltzen zion borobil

eta heltzen zion arku-jolas

eta heltzen zion barrenetik

sabeletik

bero, goxo, ezti, gorri

orkatz-emeari.

Sartzen zuen gonapean eta

zast!

bihurtzen ziren biak izar

eta gero haize,

eta ehiztari

eta batzuetan basurde

eta gehienetan ezkur.

Anaiaz ezer gutxi daki etxeko alabeak.

Etxeko seme izan aurretik egin zuten etxeko gizon.

Egin zuten jabe.

Nagusi eta –dun.

*

*

*

Behin baino gehiagotan egin du:

gona gorria buru gainean zabaldu.

Teilatu baten babesean errazago ixten dira begiak.

Eta itsu-otso-hatsa

lurrun bihurtu baino lehen

hobe lainoa-behe eta sasia-goi

zein leihotatik esnatu izatea.

Etxeko alabea isiltasuna da,

sekretu baten lehen hitza,

esan ezin den zauri hori,

ezustea

eta lotsa

eta une oro itzultzen ez den kontzientzia.

Etxeko alabea

beheko suaren diskrezioa da,

ipurtargi bat txinparta artean.

Behin baino gehiagotan egin du:

gona gorria buru gainean zabaldu.

Hori da bere etxea.

Nekezago egiten da negar euripean.

*

*

*

Zimur-gosez zahartu da,

erdizka,

ezkerrerantz erorita

eta hauskor.

Orin-zain zahartu da,

txokolate ontzak gorputzari itsatsi gogoz.

Baina honetara ezkerro

zuri, garden, birjin

hilko ditu bere pentsamenduak

eta etorriko da

etxeko alabea

oinez eta oinez

armairuan barrura eta barrura

zulo beltza bukatzen ez den tokiraino.

Hor jantziko du gona gorria azkenekoz,

erantzeko presarik gabe.

EZIZENA: ZIRAUN